

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

2651

HUTS-ZUZENKETA, honako agindu honena: Agindua, 2022ko maiatzaren 6koa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baita obra-kontratuak (prozedura irekia eta ireki sinplifikatua), zerbitzu-kontratuak (prozedura irekia, ireki sinplifikatua eta negoziatua) eta hornidura-kontratuak (prozedura irekia eta ireki sinplifikatua) esleitzeko administrazio-klausula partikularren agirien eredia. Next Generation funtsak.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariari buruzko abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2.b) artikulua hau ezartzen du: argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak Jaurkitzearen Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, baldin eta nabarmenak badira, dokumentuen esanahia aldatzen ez badute, eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada.

Horrelako huts bat atzeman da honako agindu honetan: Agindua, 2022ko maiatzaren 6koa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baita obra-kontratuak (prozedura irekia eta ireki sinplifikatua), zerbitzu-kontratuak (prozedura irekia, ireki sinplifikatua eta negoziatua) eta hornidura-kontratuak (prozedura irekia eta ireki sinplifikatua) esleitzeko administrazio-klausula partikularren agirien eredia. Next Generation funtsak. Agindu hori 2022ko maiatzaren 23ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (98. zk.) argitaratu zen. Horrenbestez, zuzendu egiten da hemen.

2022/2213 (2/2) orrialdean,

hau dio:

«Lehenengoa.– Administrazio-klausula partikularren agirien eredia onartzea, honako kontratu hauek esleitzeko: obra-kontratuak (prozedura irekia eta ireki sinplifikatua), zerbitzu-kontratuak (prozedura irekia, ireki sinplifikatua eta negoziatua) eta hornidura-kontratuak (prozedura irekia eta ireki sinplifikatua). Next Generation funtsak. Eranskinean dago jasota.»

Baina hau esan behar du:

«Lehenengoa.– Administrazio-klausula partikularren agirien eredia onartzea, Next Generation funtsen finantzaketa duten kontratu hauek esleitzeko: obra-kontratuak (prozedura irekia eta ireki sinplifikatua), zerbitzu-kontratuak (prozedura irekia, ireki sinplifikatua eta negoziatua) eta hornidura-kontratuak (prozedura irekia eta ireki sinplifikatua).»